

EUSKAL MITOLOGIA

Euskal mitologia kristautasunaren aurretik Euskal Herrian zeuden sinesmenak dira, zehatzago esanda, Historiaurrean du jatorria, gizakia kobazuloetan bizi zenean. Pertsonaia magiko eta elezaharren multzoak osatzen du, eta naturarekin daukan gertutasunaz gain, garai horretako gizakiek ezin ulertutako gertaera zein gauzei erantzun bat emateko erabiltzen zuten.

- Zer dira elezaharrak?

Elezaharrak mendeetan zehar belaunaldiz belaunaldi transmititu izan diren ipuin edo garai bateko sinesmenak dira. Euskal mitologiaren zati garrantzitsu bat da, zeren eta garai horietan pentsamenduak ezagutarazteko aukera bakarra ahozkoa zen, horregatik, elezahar bakar bat hamaika era desberdinetan kontatua aurkitu dezakegu Euskal Herrian zehar, nahiz eta denek ondorio edo ikaspen berdinak dituzten. Herri askok beraien elezaharra ere badute.

Pertsonaiak:

Euskal Herrian zehar pertsonaia mistiko asko aurkitzen dira, ahate edo ahuntzen hankak dituzten emakume lirainetik hasi eta begi bakar batekin bidean agertzen zaion dena irentsitzen duen erraldoi tripa handi bat arte.

Hemen dituzue Euskal mitologiako pertsonaia ezagunenetako batzuk:

Tartalo: begi bakarreko izaki gaiztoa da.

▶ TARTALOREN IPUINA



Traganarru: itsas zakarraren jeinua da.



Mari: justiziaren jainkosa da. Guztia ikusten du eta jainkosarik garrantsitsuena da.



Lamiak: euskal mitologian oso pertsonaia ezagunak dira.



Zezen gorri: Zezen, behi, zekor edo txahal gorri itxura hartzen du.



Sugaar: Suge ar gorri baten itxura du. Marirekin umeak eduki zituen.



Basajaun: Basoko jauna da.



amalur: jainkosa nagusia da.Lurra da izaki bizien bizilekua, eta bera da gure ingurune naturala sortu duen berezko bizi indarra. Hari esker bizi dira animaliak.



Hemen duzue Nahikarik, gure lagun handiak eginiko bertsoa euskal mitologiako pertsonaiei buruz!

Sorginak eta akerbeltz

hainbeste piztia

Ahate hankak eta

ilea horia

Asmatu in dezute

hauxe da lamia

gehiago ikasteko

hau mitologia!

SINISMENAK:

Euskal Herrian mito eta sinesmen ugari daude antzinako ohiturei lotuak; eta, orobat, ospakizun ugari daude egutegiko data jakinei lotuak. Hona hemen horietako batzuk:

LAUBURUA:

Eguzkiaren sinbolo paganoa da. Gurutze bat irudikatzen du, beso okertuekin. Euskal gurutzea dela esan liteke.

Iritzi ugari daude lauburuaren esanahiari buruz: batzuen ustez, eguzkia irudikatzen du; beste batzuen ustez, berriz, mugimendua edo gizakien adinak; beste interpretazio baten arabera,

eskuinera begira badago, bizitzaren sinboloa da, eta ezkerrera begira badago, berriz, heriotzaren sinboloa, horregatik ageri ohi da era horretara hileta monumentuetan. Energiaren edo gizontasunaren sinboloa ere bada. Bertikaleko buruek adierazpen femeninoa (emozioei eta pertzepzioari lotua) adierazten dute, edo suaren eta uraren osagaiak. Bestalde, buru horizontalak gizonezkoen energiaren sinboloak dira (mentala eta fisikoa), edo airea eta Lurra.

Lauburua sua egiteko amuletoa zen historiaurrean, eta, horrela, su sakratua irudikatzen du.



BEGIZKOA:

Pertsona batzuk begiradaren bidez beste pertsonengan kaltea eragiteko gai direla adierazten duen sineskera. Euskal mitologian sorginkeriarekin du lotura. Izan ere, sorginek, akelarreetan, begizkoz jotzen zituzten haurrak, helduak eta animaliak. Amuleto magikoen bitartez aurre egin ziezaiekeen. Gaur egun, etxearen eremuarekin dago lotua, eta emakumeak izaten dira protagonista.

HERIOTZA:

Euskal Herrian erritual eta ohitura ugari izan dira heriotzaren inguruan. Heriotzari buruzko ohitura, erritual zein kontakizun guztiek oinarri bera zuten: guztiek hil ostean bizia zegoela ziurtatzen zuten. Lehen, heriotza beste bizitzara igarotzeko ate bat balitz bezala ulertzen zen. Gaur, ordea, amaiera bat bezala ikusten da. Heriotza osteko beste bizitza horretan ez sinistean, erritoek euren zentzua galtzen dute.

Euskal gizartean, hileta errituetan emakumeek gizonezkoek baino garrantzi gehiago izan dute. Emakumeak izan dira neurri handi batean erritu horien bitartekariak. Bazuten, bada, jeinu mitologiko bat herio izenekoa heriotzaren jeinua bezala hartzen dena, eta bizitzatik hilen mundurako bidea erakustera etortzen zen jeinu bat bezala zela esaten zen. Pertsona baten heriotzaren arrazoia biraoa edo begizkoa izan zitekeela pentsatzen zen. Gizaki bati biraoa edo begizkoa botatzen diotenean, Heriok bere lana egiten du, eta gizaki hori beste mundura bidaltzen du. Zakur baten zaunka etengabeak Herioren etorreraren berri ematen du, etxe horretan norbait hilko den seinale omen da.

JENTILARRI:

Hainbat elezaharren arabera, jentilek urruneko parajeetatik jaurti bide zituzten gaur egun ikus daitezkeen zenbait harriri deritzo jentilarriak. Euskal Herri guztian daude sakabanatuak, adibidez: Urdiolako amildegian (Arrankudiaga), han inguruko mendietan jentilak boloetan jolasean ari zirenean amildu zena; Arakaldoko Gaztelua; Markolan (Karrantza), jentil batek harria jaurti zuenean, gizon bat eta idi uztarri bat hartu zituena azpian...

San Joan Eguna:

San Joan Bautistaren jaia da. Gabonetatik sei hilabetetara, hau da, ekainaren 24an. Tradizio bat da udaren solztizioaren etorrera ospatzeko, urteko gau laburrenean, hain zuzen ere. Ospakizun hauek paganoak dira jatorriz.

Ekainaren 23an ospatzen da egun hau, eta hipar-hemisferioan egunik motzena da. Gau horretako erritual nagusiak, ura eta sua dira.

Beste alde batetik, Zugarramurdiko haitzuloetan Akelarrea ospatzen da, larunbat gauean, eta bertan dantzatzen dute sorginek txalapartaren doinura, “zanpantzarrak” agertzen diren arte, zintzarriak joaraziz haiek uxatzeko helburuarekin.

Arimen Gauda (Halloween):

Hildakoen homenez ospatzen da jai hau, azaroaren hasieran. Santu Guztien Eguna edo Domu Santu eguna azaroaren bata izaten da eta Arimen Gauda bezperan ospatzen da. Azaroaren

bian Hilen Eguna ospatzen da. Urriaren 31n Arimen Gauda edo “Halloween” ospatzeko ohitura dago Euskal Herriko leku askotan.

Ohitura hauek, erlijio katolitoan dute jatorria, Samhai jaian ateratakoa, hain zuzen. Jai horren izena, antzinako Irlanderatik dator, eta “udaren bukaera” esan nahi du.

INAUTERIAK:

Euskal Herriko festa deigarri eta koloretsuenak dira. Badaude hiriko Inauteriak, eta modernoak, hala nola Tolosakoak, eta, beste aldetik, landa eremuko inauteriak daude, tradizionalagoak eta ia beti pertsonaia mitologiko bati lotuta egon ohi direnak.

Pertsonaiak

- Zanpantzarrak: euskal mitologiako pertsonaia oso garrantzitsuak dira, eta Inauterien hasiera eta amaiera adierazten dute. Tradizionala da, baina zoritxarrez ez dugu jatorria ezagutzen.



-Zagi-dantza:

Inauterietako igandean, gazte talde batek interpretatu ohi du dantza hau, euskal Inauteriaren adierazgarrienetako bat

dena. Konpartsaren barruan hartz bat ere eramaten da, haurrak izutzen dituen, eta baita



hezitzaile bat ere, hura zaintzeko. Hartz hau beste kultura batzuetan ere ezaguna da, naiz eta jantzi desberdin batzuekin edo hezitzailea berari tiraka dabilena.

- Mamoxarroa: Altsasuko Inauteriko pertsonaia da, jatorri ezezagunekoa, eta etxez etxe oles eginez ibili ohi dira. Hauek, aurpegi osoa maskara gorri batez estalia eramaten dute.



OLENTZERO ETA GABON GAUA:

Olentzero Euskal Herriko tradizio oso ezaguna da, eta Gabonetan gurekin egoten da. Olentzero mendian bizi den baserritar eta ikazkin bat da, eta Gabon Gaua iristen denean, opariak ekartzen dizkigu. Olentzerok opariz kargatuta eta Mari Domingi zein Napo astoaren laguntzaz pozez betetzen ditu Euskal Herriko etxe guztiak. Gurasoek esaten dute Olentzero izan zela lehenengo baserritarra, eta hori dela eta, umeei opariak ekartzen dizkiela.

Gabon Gaua, bestalde, abenduaren 24an ospatzen da, eta Euskal Herrian gaueko meza eta afaria izaten dira. Gabonetan, familia guztiak elkartzen dira, elkarrekin afaltzeko eta ondo pasatzeko. Gabonetan, gainera, Olentzerok opariak ekartzen dizkigu, eta horretarako, Eguberri eguna baino lehen gutunak ematen dizkiogu. Gabon Gaua pozarekin eta umorearekin igarotzen da, eta hori da Euskal Herriko tradizio honen magia.

Hori guztia gure herrian oso garrantzitsua da, eta familia eta lagunekin elkartzea pozgarria da. Olentzero eta Gabon Gaua momentu magikoak dira eta guztiok ondo pasatzen dugu!

SORGINAK ETA AKERBELTZ:

Sorginak:

Euskal Herriko leku askotan aipatzen dira jeinu ezagun hauek, Hegoaldean nahiz Iparraldean. Zuberoan, Belagile izena hartzen du, gehienetan. Sorsain izenarekin ere ezagutzen dira euskal herriko leku jakin batzuetan. Mariren, etsaia edo Akerbeltzen esanetara dagoen emakumezko jeinu gaiztoak dira sorginak.

Aparteko doainak dituzte, eta beraiei erruduntzen zaie uztaren hondatze ezustekoak, errota eta burdinolen matxurak, gaixotasun eta heriotza misterioitsuak, itsasontzien urperatzeak, eta abar. Baina, istorio guztietako pertsonaia gaiztoak ere ez dira, adibidez esaten da sorginak erditzerako orduan trikimailu asko zezkitela, edo gaixotasun eta izurriteen aurkako sendabelar edota pomada ugari egiten zituztela ere esaten zen. Hau da, sorginak oso txintxoak eta esanekoak dira, lagileak ere bai, eta batez ere oso azkarrak, baina arrazoi horiegatik ere ez zenuke nahiko horrelako bat etsai moduan eduki.

Akerbeltz:

Euskal herriko 15 lekutan agertzen da gutxienez. Akerbeltz itxura du. Etxe-abereek babesten dute eta sorginen buruzagi da. Ezaugarri onuragarriekin agertzen zaigu batzuetan, eta beste zenbaitetan bere alde iluna erakusten digu.

Alde ona erakusten duenean Mariren antzeko dohaineekin agertzen zaigu, eta zenbait jeinuren nagusia edo buruzagia da.

Ahalmen horiez gain, eragin ona du bere babesera utzitako animalengan, eta abere horiek sendatzeko gaitasuna ere badu.

MITOLOGIA MUSIKA MUNDUAN

Mitologiak kontserbatu beharreko elezahar, istoria, kontakizun, pertsonaia, sinismen eta ohitura ugari ditu, eta horregatik oso garrantzitsua da daudenei zein datozen belaunaldiak informazio baliotsu honetaz aberastea. Era asko daude horretarako, baina bat musika eta kantuz transmititzea da. Jende askok pentsatuko du mitologiari buruzko abestiak aspaldiko kontuak direla, baina badaude orainaldiko artista jakin batzuk haxe bera bultzatzen dutenak:

Neomak

Euskal talde bat da, eta euskal mitologian oinarritutako abesti ugari dituzte. Adibidez, “Eguzkiloreak”. Kantu hau, ZETAKekin batera eginiko abesti ederra da. Guztia mitologiari buruz doa.

 **ZETAK, NEOMAK - EGUZKILOREAK**

Zetak

Pop musika, Euskal folklorea eta Euskal mitologia nahasten dituen talde fenomeno da. Bertako abeslaria eta protagonista Pello Reparaz da, eta beste bi taldekideak Leire Colomo eta Iban Larreburu dira. Beraien abestiak euskal mitologiarekin oso lotuta daude, eta beraien kontzertuak ere oso tematika mitologikoa dute, kantuekin gehiago harremantzen laguntzen duten espektakuluak eskeiniz. Beraien azken kontzertuak Mitoaroa izena zuen, eta beraien hitzetan esaten digute mitologiaren munduan zeharo

murgilduko ginela. Hauek izan ziren kontzertuaren hasieran esandako hitzak:

“Hau ez da kontzertu bat, MITOAROA DA”

Kontzertu hura (beraien beste asko bezala) sorpresaz beterik zegoen: Efektu berezi mordoa, gonbidatu berezi asko, adibidez Erramun Martikorena, edota Neomak taldea; euskal mitologiarekiko erreferentzi gehiegi...

Laburbilduz, euskal mitologiaren erreferente handia da eta oso ona gainera musika munduan.

Hemen dituzue kantu ezagun batzuk:

▶ **ZETAK - HILETA KANTU NAFARRA**

▶ **ZETAK - ARALARKO DAMA** ▶ **ZETAK - Akelarretan**

Hau berriz album berriena da:

▶ **AAZTIYEN - ZETAK (full album, album osoa)**

Bibliografia

-Google (Irudiak)

-<https://euskalmitologia.com/> (Informazioa eta irudiak)

-<https://www.amaroa.com/hasiera> (Informazioa)

Egileak:

Eneka Etxabe Larrañaga

Iraide Galdos Bikendi

Unai Gangoiti Beristain

Maryam Mayo Hajaj